

**2016ko ABENDUAREN 20AN BIGARREN DEIALDIAN EGINDAKO INAZIO BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLAKO BATZAR OROKORREKO AKTA**

GAI ZERRENDA:

- 1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA
- 2.- MEMORIA AKADEMIKOA
- 3.- 2015-2016 IKASTURTEAREN BALANTZEA
- 4.- 2016-2017 IKASTURTEKO AURREKONTUA
- 5.- EKINTZEN EGITARAUA
- 6.- ZUZENDARITZA BATZORDEAN PARTAIDE BERRIEN ONARPENA
- 7.- ESKAERAK ETA ERANTZUNAK.

Iluntzeko 8etan hasi da bilera boto eskubidea duten 7 pertsonarekin.

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA.- Aho batez onartu da.

2.- MEMORIA AKADEMIKOA.-Jose Antonio Gomez Garrido jaunak memoria akademikoko datuak azaldu ditu. Ikasturte honetan 619 ikasle daude, 404 neska eta 215 mutil. 5 eta 6 urte bitarteko ikasleak (52), 7 urtekoak (64) eta 8tik aurrera adin mugarik gabe: akordeoia 11, biolina 37, biolontxelo 33, dantza 259, flauta 16, gitarra 50, kantu korala 88, klarineta 20, hizkuntza musikala 178, oboea 3, panderoa 1, perkusioa 22, pianoa 106, saxofoia 31, trikitixa 18, tronboia 11, tronpa 4, tronpeta 20 eta txistua 6.

3.- 2015-2016 IKASTURTEAREN BALANTZEA-

**Sarrerak:**

Ikasleen kuotak ..... 220.857,60  
Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza..... 174.325,90  
Udala ..... 418.062,06,-  
**Sarrerak guztira ..... 813.245,56 €**

**Gastuak:**

Pertsonal gastuak .....686.278,76  
Gastu orokorrak .....80.964,65  
Gastu finantzarioak .....5.625,10  
Amortizazioak .....1.455,02  
**Gastuak guztira .....774.323,53€**  
**Ekitaldiko superabita..... 38.922,03**

4.- 2015/16 IKASTURTEKO AURREKONTUA

**Sarrerak:**

Ikasleen kuotak .....220.000  
Diru laguntzak:  
Eusko Jaurlaritza .....180.000  
Udala .....393.000  
**Sarrerak guztira .....793.000**

**Gastuak:**

Pertsonal gastuak .....700.000  
Ustiapen gastuak .....80.000  
Material erosketa .....6.000  
Gastu finantzarioak .....7.000  
**Gastuak guztira .....793.000**

5.- EKINTZAK

Imanol Garaizabalek ikasturte honetako ekintzen egitaraua irakurri du, aurreko urteetako dinamika jarraitzen du. Ikasturte honetan nabarmentzekoa da Ekainean ekintza asko pilatuko zaizkigula. Astero edukiko dugu zerbait berezia.

6.-- ZUZENDARITZA BATZORDEAN PARTAIDE BERRIEN ONARPENA

Marci Rodriguez izan da bere burua Juntarako aurkeztu duen pertsona bakarra. Aho batez onartu da bere proposamena. Beraz, Juntako kide izatera pasa da.

7.- ESKAERAK ETA ERANTZUNAK.-

Pertsona batek, proposamen bat luzatu du. Gauzak hobetze aldera, ea ikasleek kurtso bukaeran, irakasleak ebaluatzea posible izango litzatekeen. Proposamenaren helburua ona den arren, ez da erraza ikusten aurrera eramatea. Arrazoi nagusia umeak txikiak direla da. Ondorioz, kalitatezko galdeketa bat egitea ez litzateke erraza izango, eta fidagarritasuna dudan geldituko litzateke. Juntako bileretan aztertuko dira proposamena eta aukera desberdinak.

Beste gairik ezean Jose Antonio Gomez Garrido lehendakariak bukatutzat eman du bilera.